



EDIKTUA

ETXARRI ARANATZ 2013KO EGUTEGIA

Alkateak hiru ordezkari sindikalek 2013/01/09an aurkeztutako proposamena azaldu du. Idazkariari entzun ondoren, Osoko Bilkurak proposamena onartu du.

Etxarri Aranazko Osoko Bilkurak aho batez erabakia hartu du, honako xedapen hauei jarraikiz:

-- 26/2012 FORU LEGEA, abenduaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

--453/2012 EBAZPENA, maiatzaren 30ekoa, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2013ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duena;

--Abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako enplegatuentzat urteko lanaldia ezartzen duena, hain zuzen ere, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren aplikazio eremuan sartzen direnentzat;

Hauxe da 2013ko urtarrilaren 14an Osoko Bilkuraren erabakia:

2012ko jaiegunen lan egutegi hau onestea, Etxarri Aranazko udal bulegoetarako:

Urtarrilaren 1a:

Urtarrilaren 7a: Errege egunaren ondoko astelehena

Martxoaren 28a : Ostegun Santua.

Martxoaren 29a: Ostiral Santua

Apirilaren 1a: Pazko astelehena

Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

Ekainaren 13a: San Kiriko.

Ekainaren 14an: zubia

Uztailaren 25a: Santiago eguna

Abuztuaren 5, 6 eta 7: Herriko Jaiak.

Abuztuaren 15a: Abuztuko Andre Maria.

Azaroaren 1a: Domu Santu.

Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.

Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2013. urtean epeak kontatzeari dagokionez, igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.

2.-Etxarri Aranazko Udalaren bulegoetan, eguneko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, astelehenetik ostiralera, 217 egun, eta zerbitzuen beharren arabera osatu beharko da urteko lanaldiaren lanordu-kopurua, 1.592 ordukua baita; eguneko lanordua honela banatuko dira: 8:00etatik 15:00etara guztiendako derrigorrezkoa, eta gainerako 20 minutuak langile bakoitzak nola bete erabakita, malgutasunez, 7:40etik 8:00etara bitarte eta 15:00etatik 15:20era bitarte.

3.-Erregistro orokorra 10:00etatik 14:00etara egonen da irekita, jendea hartzeko.

4.-Zerbitzu anitzetako langileen lanaldi orokorra 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, denentzat, 7:30etik 14:50era bitartean. Ekainaren 14an lan egin beharko dute, eta langile bakoitzak hautatutako beste egun bat libre hartu. Garbitzaileen ordutegi orokorra, 7:00etatik 14:20era bitartean.

Etxarri Aranatz, 2013ko urtarrilaren 24an.

Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

